

Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

LITERATUR SOLASALDIA

2010eko otsaila

<http://liburutegikoalbisteak.donostiakultura.com>



Mohamed Chukri

Beni Chiker (Marruecos), 1935 – Rabat (Marruecos), 2003

1935ean jaio zen Ayt Xiker-en, edo Had, Bni Xiker-en Rif mendialdeko Nador eskualde berberean. Inondik ere, jaioterriko tribuaren izenetik hartu zuen geroko batean deitura, Xukri, sasoi hartako Rifin familia izenak nekez erregistratzen zituzten-eta. Gosete garaian sortu zen, miseria gorrian.

Aitaren tiraniatik ihesi, Tangerra joan zen, bakarrik. Tangerren, etxegabe bizi izan zen auzorik txarretan, lapurretan, biolentzia giro gogorrean, droga artean, eta bere burua, behin baino gehiagotan prostituitzera emanez. Tartean, Tangerra heltzen ziren marinelei gidari lanak egiten ere jardun zuen. Hiri hartan bertan ikasi zituen gaztelaniazko lehen hitzak, prostituta, lapur eta kontrabandisten konpainia noblean. Garai latz horixe dugu Ogi hutsa nobelan modurik gordinenean kontaktzen duena.

Hogei urte zituela aldatu zen Mohameden bizimodua. Irakurtzen eta idazten ikasi zuen, arabiera klasikoan ikasi ere, ez Marokoko arabieran, ezta ama-hizkuntza zuen bereberrean ere. Tangerretik Laraxera jo zuen 1956an, Marokok independentzia lortu zuen urtean. Lehen Hezkuntzan hasi zeneko, hogeita bat urteko gizon gaztea zen Mohamed. Eskola Normalera sartu eta irakasle ikasketak egin zituen ondoren. Irakasle ere jardun zuen. Eta atzera Tangerrera 1960an, lehengo lepotik burua, bateko zurruta eta besteko prostitutak. Zer edo zer aldatua zen, ordea: idazten hasi zen.

Tangerren, bertan bizi ziren idazle atzerritarrekin bat egin zuen: Paul Bowles, Jean Genet, Tennessee Williams, William Borroughs eta gainerakoak. 1966an publikatu zuen Xukrik lehen nobela, Beiruteko Al-adab hilabetekarian: Al-Unf ala al-shati (Biolentzia hondartzan). Harrezkero, Bowlesek eta Xukrik Ogi hutsaren ingelesezko itzulpena gauzatu zuten. 1973an argitaratu zen Ingalaterran, For Bread Alone izenburupean. Argia egin zen, partez bederen: atzerrian libre zen liburua, etxean preso.

2003ko azaroaren 15ean hil zen Mohamed Xukri, minbiziak janda, Rabateko ospitale militarrean.

Ogi hutsa



Mohamed Xukrik 11 urte zituela Rifeko jaioterritik Tangerrera emigratu behar izan zuen. Haurtzaroa bertako kaleetan, miseria gorrian, bizi izan zuen.

Are ogi hutsa, tartean ezertxo ere ez zuena, nekez lor zitekeen garaiak ekartzen ditu gogora bere liburu aztoragarri bezain gordin honetan.

Eleberri autobiografiko hau trilogia baten lehenbiziko liburua da. Marokon debekatua egon zen, gordintasunagatik. Debeku hori ez zen baliogabetu 2000 arte.

N CHU

Mohamed Chukriren obra Donostiako Udal Liburutegien Sarean

Tiempo de errores (2004) **N CHU**

Rostros, amores, maldiciones (2007) **N CHU**

Jean Genet en Tánger (2009) **V 14035**

Erabilitako iturriak

http://www.mundoarabe.org/mohamed_chukri.htm

<http://www.igela.com/dokumentuak/prentsaurrea2010/igela%20ogi%20hutsa%20mohamed%20xukri%20aurkezpena%202.doc>